

**Pedro Ezkurra, Iruñeko poesia sariketa
Lehen saria
nafarroa, 1609**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

<http://klasikoak.armiarma.com>

Relacion de las fiestas que el Ilmo. Señor Don Antonio Venegas de Figueroa obispo de Pamplona hizo... el año de 1609.

Argitaratzen den bertsio honen iturria: K. Mitxelena, Textos arcaicos Vascos, Madrid, 1960, 112-117 or.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Pedro Ezkurra, Iruñeko poesia sariketa
Lehen saria
nafarroa, 1609

Aldarêco Gorpûtz, Sanduâri

Iaquiteâ yçâmbânu
borondâtea beçalâ,
êne anâya, erranen nîçu
nôr daucâgun mayean.

Ceruetâco jâuna dûgu
gôgos jausten çaignâ:
çeruan beçâyñ ôso dago
guretâco oguiân.

Cêru êta lûr betatçêndu
âren gôrputz sanduâc,
badarîc emâten çâygu
ôsorîc âmen batean.

Ongui ohârtuz janegaçu,
yl etçaytçan begirauçu.

Eri çîran âmenbatez
mûnduan guîçon guziâc
êta êgun eman draue
berçebâtec viçiâ.

Eçîn jan çî<n>dûquean çûc
ambâteco amenâ:
âla vêra chipitû çe
çure aguâren neurrirâ.

Bâya nâi du jan deçâçun
garbitûric arimâ:
ala ezpâda, çuretâco
vîcia ez, baya êrioa dâ.

Ongui ohârtuz janegâçu,
yl etçây<t>çan beguirauçu.

Gúre anâya eguînez guêro,
mâyte dîtu guiçonâc
âmbat êce barcatçên du
paradiçuco jateâ.

Eta bâqueac eguiteco
bêre gôgo sandurâ,
gûre arteân guelditû ce
âla nôla çeruân.

Egun Jâyncoa Jâyncoa gâtic
guiçonâri ematen dâ;
bâyña Jâyncoa Jâyncoa gâbe
jaten duêna yltcen dâ.

Ongui ohârtuz janegâçu,
yl etçâytçan beguirâçu.

Ayn goçoro apayndu dîgu
ôray dîgun jateân,
êçe, guiçonac nay bâdu,
ytçul dâyte jateân.

Ongui jauturic nigarrês,
viotçean dâmu duçulâ,
becatuên urriquirêqui,
çar<r>ezquîo guztiac.

Gênde guztiêy ôngui eguîçu
fêdean ôso çaudelâ,
Jâyncoa bâytan echidêçu,
âla çayçun vaqueân.

Ongui ohârtuz janegâçu,
yl etçâytçan beguirâçu.